

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

391

EBAZPENA, 2015eko urtarrilaren 26koa, Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita ondoko izendapena: Arabako lurralde historikoan eta Bizkaiko lurralde historikoan Arkamu-Gibillo-Arrastaria (ES2110004) eta Gorobel Mendilerroa (ES0000244) Batasunaren Intereseko Lekuak (BIL) Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) eta Hegaztien Babes Bereziko Eremua (HBBE) izendatzea.

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2014ko urriaren 23ko Aginduaren bitartez, hau erabaki da: Arabako lurralde historikoan eta Bizkaiko lurralde historikoan Arkamu-Gibillo-Arrastaria (ES2110004) eta Gorobel Mendilerroa (ES0000244) Batasunaren Intereseko Lekuak (BIL) Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) eta Hegaztien Babes Bereziko Eremua (HBBE) izendatzeko alde zuzeneko onarpena ematea.

Xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legeko 8.1 artikularekin bat, eta apirilaren 15eko 1/2004 Legegintza Dekretuaz onartutako Natura Babesteari buruzko testu bateginekiko 22.2 artikularekin bat, jendaurrean jarri behar dira eremuen izendapenak, honako hauek adierazita: lekuen kartografia mugapenak, izendapenak justifikatzen dituzten batasunaren intereseko habitat motak eta flora eta fauna espezieak, kontserbazio-egoeraren balorazioa, lekuak kontserbatzeko helburuak eta arauak, eta jarraipen programak.

Horregatik guztiagatik, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko apirilaren 9ko 196/2013 Dekretuko 6.c) artikuluan xedatutakoarekin bat, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Jendaurrean jartzea honako izendapen hau: Arkamu-Gibillo-Arrastaria (ES2110004) eta Gorobel Mendilerroa (ES0000244) Batasunaren Intereseko Lekuak (BIL) Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) eta Hegaztien Babes Bereziko Eremua (HBBE) izendatzea; jendaurrean jarriko da, EHAA-n iragarri hau argitaratu eta biharamunetik, 2015eko martxoaren 27ra arte. Epe horretan, egoki irizten diren alegazioak aurkeztu ahal izango ditu edozein pertsonak.

Bigarrena.– Goragoko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, epe horretan dokumentazioa ikusgai izango da bai egoitza elektronikoan: www.euskadi.net/natura2000, bai EAeko Administrazio Orokorraren Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzan, jendaurreko ordutegian, helbide honetan:

Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza
Ingurumen eta Lurralde Politika Saila
Eusko Jaurlaritza
Donostia kalea 1
01010 Vitoria-Gasteiz.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko urtarrilaren 26a.

Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren zuzendaria,
AMAIA BARREDO MARTÍN.